

# **MINI - EKOLOGUNEAK**

Argazkia: Basozelai kalean (Gizarte Etxearen alboan) kokatutako mini - ekoguneak



Hondakin hauek utz ditzakezu:

1. CDak/ DVDak
2. Inprimagailuko kartutxoak (tinta eta tonerra)
3. Telefono mugikorrak, kargatzeko gailuak eta bateriak
4. Pilak
5. TEEH txikiak (Tresna Elektriko edo Elektronikoen Hondakinak; funtzionatzeko entxufea edo pilak behar dituzten gailuak dira, dagoeneko erabiltzen ez direnak; zulotik sartzeko moduko tamaina izan behar dute, esaterako ordenagailuko sagua, erlojuak, kalkulagailuak, etab.).
6. Kontsumo baxuko bonbillak (harizko bonbillak hondakin biltegi arruntetan utzi behar dira).

## **Minipuntuaren kokalekua:**

SAN MIGUEL: GARBILEKU KALEA (Pinceles parkean anbulatorioaren alboan).

SAN MIGUEL: GERNIKA KALEA (Sofía Taramona ikastetxerako sarreran)

BASOZELAI KALEA: Gizarte Etxearen alboan.

KARMELO TORRE KALEA: Anbulatorioaren alboan.

KAREAGA GOIKOA KALEA: Iparragirre izkina.

SOLOARTE KALEA: Parkerako sarreran, ahateen urmaelaren alboan.

KATALUNIA KALEA: 36. zenbakiaren aurrean (Cartonajes).

URBI KALEA: Urbi Institutura sartzeko eskailerak.

MATXITXAKO KALEA: 1. zenbakiaren aurrean.

Bilketa astero egingo da, eta Cesparen esku egongo da.